


Erromantiko jarrai dezagun



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

Ideologiak, “idealaren eritasun kolektiboak” izan daitezke, dio François Duparc-ek “Vie et mort des idéologies” (Ideologiaren bizi eta herioa) artikuluan (*Le journal des psychologues*, 2009/02, 265. zbk.). Psikiatra horren ustez, ideologiak onuragarriak izan daitezke jendarte edo familia batean, kohesioa eta elkartasuna sortzeko, norbanakoen psikismoa egituratzeko eta, hondarrean, bizitzeko edo bizirauteko. Hala ere, norberarentzat eta gizarte osoarentzat kaltegarriak izan daitezke ukatzen dutelarik denborak dakarren aldakortasun eta halabeharra, eta modu totalitarioan aplikatuak direlarik, aniztasuna gaitzesten dutelarik. Ideologia garaikideen artean, François Duparc-ek izendatzen ditu, besteak beste, komunikazio laster eta erakargarria, kontsumismoa, indibidualismoa (gizabanakoa bakartasun sozialera bidera dezakeen ustezko autonomia edo independentzia), kapitalismo handia.

Ideologia zorrotza ez, ideal loratua izan beharko genuke xede, nire ustez, eta ideologiak, ideal horri buruz bide egiteko tresna laguntzailatzat soilik hartu beharko genituzke, hausnartzeko marko akuilatzailetzat bakarrik, beste-

rik gabe. Hortaz, pentsatzen dut ideal bera helburu izan dezaketela ideologia ezberdinek, eta balio duela ideologia diferenteak baina ideal bera sostengatzen dituzten eztabaidak sustatzea.

Hori egin dute Robert Sayre eta Michael Löwy-k, frantsesez idatzitako *Romantisme anticapitaliste et nature* (*Erromantizismo antikapitalista eta izadia*) saiakeran (Payot, Paris, 2022). Sayre estatubatuarra Parisko unibertsitate irakasle emeritua da, eta Löwy soziologo eta filosofo marxista eta ekosozialista franko-brasildarra da. Erromantizismo anglo-saxoiari buruz ikuspegi berria proposatzen dute. Haien ustez, erromantizismoa ez da XIX. mendeko mugimendua: zinezko mundu ikuskera da. Autoreen aburuz, erromantizismoa da zibilizazio kapitalistaren eta horrek planetari eragin kalte izugarrien kontrako protesta kulturala, XVIII. mendean hasi eta oraindik dirauena. Sei figura arrunt desberdinen lanak aztertzen dituzte liburuan: W. Bartram botanista bidaiariarena (1739-1823), T. Cole-rena (1801-1848), W. Morris-ena (1834-1896), W. Benjamin-ena (1892-1940), R. Williams-ena (1921-1988), N. Klein-ena (1970-).

Obra horretan agertzen den gogotaren arabera, erromantizismoa oinarritua da, garaiz garai, neurritz goitiko “aurrerapenaren” aurkako jazarraldian eta kapitalismo handiak sortzen dituen naturaren kontrako mehatxuen arranguran, edozein izanda artisten ideologia politiko-moralak. Guziek amankomunean dutena da ideal bat, gutariko baikoitza aitzinera baikorki bultzako duen utopia, hau da, Lurrari eta biziari buruzko begirunea, sistemak hazten dituen eritasunezko pasio triste eta ingurumen-zapaltzailei bizkarra emanda.

Jakina da erromantizismoak iragana eta nostalgia goraiatzen dituela. Sayre eta Löwyren ustez, berriaz, aukeratu sei figura erromantikoei irakasten digute galtzea itxaropen bihurtu behar dela uros irauteko, munduarekin harmonian. Ondorio hori du ateratzen Evelyne Pieiller kritikari literarioak hilabete honetako *Le Monde Diplomatique* zenbakian, eta hori nuke nik ere bai gogoan atxikiko. Ez gaitezen gertatuaren doluan egon, ez eta modernitateak piztu hersturetan etsipenez urtu, baina delako erromantikoak bezala, ideologietatik at, helgakizkion bizia eta izadia zainduko dituen idealari! ●